


## BALIO PROPOSAMENA



Gaur egungo testuinguruan, askotan komunikazioa da erronka nagusia: guztiok ez daukagu komunikatzeko modu berdina. Horregatik, gure bitartekaritza zerbitzuek guztiok informaziora iristeko eskubidean jartzen du ardatz nagusi gisa.

Gure enpresaren helburua da komunikazioa erraztea eta irisgarriagoa egitea pertsona eta kolektibo guztientzat. Uste dugu komunikazio egokituak aukera ematen duela pertsona guztiek parte hartzera, modu honetan, gizarte inklusiboagoa eta berdintsuagoa sustatuz.

Gure enpresak kalitatean du fokua, hau da, balore kualitatiboa eskaintzen dugu. Ahal den zerbitzu onena eta pertsonalizatuena eskaintzea da gure konpromisoa. Horrez gain, inguruko beste enpresek eskaintzen ez dituzten zerbitzu espezializatuak ere eskaintzen ditugu.

Gure enpresa bereizten dituen oinarriak eta gure nortasuna definitzen dituen balioak honako hauek dira:

- **Irisgarritasuna:** gure egokitzapenak (irakurketa errazean, piktogrametan, Zeinu Hizkuntzan...) informazioa guztientzat ulergarria egiten dute.
- **Pertsonalizazioa:** bezero bakoitzaren beharretara egokitzen gara, eduki eta

formatu desberdinak eskainiz.

- **Hizkuntza aniztasuna:** zerbitzuak hainbat eskuntzetan eskaintzen dira; Zeinu Hizkuntzaz (LSE), euskaraz, gastelaniaz eta ingeleraz
- **Berrikuntza:** teknologia eta tresna bisual edo entzumenezko berriak erabiltzen ditugu komunikazioa errazteko.
- **Erosotasuna eta malgutasuna:** gure zerbitzuak bai aurrez aurre bai online eskaintzen dira, bezeroaren beharretara egokituz.
- **Jasangarritasuna:** gure baliabideak sortzeko erabiliko diren materialak birziklagarriak izango dira, ingurumenarekiko errespetua eta baliabideen erabilera arduratsua bermatuz.
- **Gizarte balioa:** gure lanaren bidez komunikazio oztopoak ezabatzen ditugu eta inklusioa sustatzen dugu.
- **Interseksionalitatea:** bezeroen identitate eta bizi-esperientzia anitzak aintzat hartzen ditugu, genero-ikuspegia, arrazismoaren eragina, kapazitismoa eta beste zeharkako ardatzak; horrela, arreta integrala eta errespetuzkoa bermatzen dugu.

## BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M<sup>a</sup> E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Irudiak: <https://www.canva.com/templates>